

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Kontrapisu demokratikoak behar ditu Europak

Aldaketa hautemanezinak arriskutsuenak izaten direla esan ohi dute. Eta aitortu behar da Europako Batasunak jakin duela krisi guztiak aprobetxatzen bere boterea isilpean eta tratatuetan jasotakoa baino haratago finkatzeko. Aldaketa horiek zuzenean eragiten diete jendearen bizi baldintzei, eta gero eta kontraesan handiagoa sortzen dute Batasunaren ustezko izaera demokratikoaren eta hauteskunde-prozesutik kanpo dagoen edozein organotan boterea biltzearen artean.

Lehen urratsa 2008ko krisiarekin egin zuten. Arau fiskalak, defizit eta zorraren muga eta austeritate politika inposatzeko aprobetxatu zuten. Politika ekonomikoaren eskema, hori betearazteko zigorrekin osatu zuten. Horrela, gobernuek gizarte-beharrak asetzera bideratutako politika ekonomiko independentea gauzatzeko aukera oro ito zuten. Horrekin lortu zuten estatu subiranoak mende-ko botere bihurtzea, esparru ekonomikoari dagokionez. Egun Euskal Herrian jasaten dugun autonomia-aren antzeko deszentralizazio administratibora eraldatu zituen Bruselak estatu independenteak.

Hurrengo urratsa Polonian eta Hungarian gobernu kontserbadoreak eta ez-liberalak agertzearekin egin zen. Orduan, Europako Batzordeak erabaki zuen zuzenbide-estatuaren egoera gainbegiratu behar zuela Batasuneko herrialde bakoitzean, eta, antzemandako hutsuneak konpondu bitartean, zehaztapenak ezarri zituen eta Europako funts jakin batzuen fluxua gelditu zuen Bruselak. Poloniak Ukrainako gerraren inguruan zuen jarrera beligeranteak zigorak kentzeko baliotik izan zuen, ezer aldatu gabe. Egoeraren adibidea da Pablo Gonzalez, euskal kazetariak bi urte baino gehiago daramatza Polonian preso, oraindik akusazio for-

malik egin gabe. Zuzenbide estatuaren auzia beste presio tresna bat bihurtu da Bruselaren esku, gobernuak bere aginduen mende jartzeko.

Pandemiaren ondoren, Txina potentzia ekonomiko gisa agertu zen, eta alderdi askotan EBren oso aurretik dagoela erakutsi zuen Asiako erraldoiak. Estatu ki-deen kanpo-harremanak eskumen eskusiboa diren arren, Ursula von der Leyenek iaz asmatu zuen Txinari eta Emmanuel Macroni laguntzeko, eta aurrean Xi Jinpinggek Parisera egin berri duen bisitan ere egon da. Bertsio ofizialak dio Macronek gonbidatu zuela, baina von der Leyenek ez zuen Olaf Scholz lagundu Txina bisitatu zuenean. Arrazoia edozein dela ere, Bruselak batasunaren jendarmeen papera hartu du eta bere muturra toki guztietan sartzen du.

Europako eraikuntza autoritario horretan, Mario Draghik lehiakortasunari buruz egindako txostenak erabaki zentralizatuak hartzearen alde egin zuen, tratatuetan ezarritako prozedurak alde batera utzita

Europaren eraikuntza autoritario horretan, Mario Draghik lehiakortasunari buruz egindako txostenak erabaki zentralizatuak hartzearen alde egin zuen, tratatuetan ezarritako prozedurak alde batera utzita. Egoera konplexuan premiazko neurriak hartzea ezinbestekoa dela justifikatzen zuen proposamen horrek.

Botereak Europako Batzordean zentralizatzen jarraitzen du, eta Batasuneko herritarrek bozketaren bidez aukeratutako organo bakarrak, Europako Parlamentuak, ia ez du eskumenik. Nolanahi ere, gero eta garrantzitsuagoa bilakatu da herritarrek hauteskundeetan botoa ematea, norabide autoritarioaren aurrean Parlamentua kontrapisu gisa indartzeko. •